



ESTEREOTIPOAK DESERAIKITZEN

HAINBAT DATU JATORRI ETA KULTURA
ANIZTASUNAREKIN LOTUTAKO ESTEREOTIPOEI BURUZ



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

Anitzen Sarea
Red de la Diversidad

ESTEREOTIPOAK DESERAIKITZEN

HAINBAT DATU JATORRI ETA KULTURA
ANIZTASUNAREKIN LOTUTAKO ESTEREOTIPOEI BURUZ



Esku artean duzun gida hau Lasarte-Oriako Udalak eta herritar eragileek azken urteetan egin duen lanketa baten ondorio da, herritarren arteko ezagutza, harremanak eta aitortza sustatzeari begira. Hain zuzen, Lasarte-Oria Gipuzkoako jatorri eta kultura aniztasunik handienetakoa duen herria da.

Estereotipoak jende multzo bati buruz sortzen diren irudiak edo kategorizazioak dira, beren itxura, jarrera edo ohituren arabera. Horrekin, kolektibo horri buruzko iritzi sinplifikatu bat sorrarazten dute, negatiboa izan daitekeena. Horiekin oso lotuta daude zurrumurruak: jendartean ahoz aho zabalitzen diren ideiak, oinarri fidagarririk izan ohi ez dutenak eta mezu sinple eta zuzenetan oinarritzen direnak. Zurrumuruaren bidez estereotipoak elikatzen dira.

Bi elementu horiek komunitate anitzen arteko elkarbizitzarako oztopoak sortzen dituzte. Horiei aurre egiteko erronka ez da nolanhikoa, eta denon inplikazioa eskatzen du.

Orri hauetan, Lasarte-Oriako hainbat eragilerekin elkarlanean identifikatu diren jatorri eta kultur aniztasunaren inguruko sei estereotipo nagusi jasotzen dira. Beren inguruko hainbat zifra eta datu kuantitatibo agertzen dira, estereotipo horiek zalantzan jartzeko eta beren inguruan hausnartzeko helburuarekin.

Hala ere, azpimarratu behar da etorkinez hitz egitean ezin direla kolektibo bakar gisa hartu, hori bera sinplifikazioa baita.


Jatorriak, kulturak eta errealitateak anitzak dira, eta hori bera aberastasuna da.

LASARTE-ORIARI BURUZKO


HAINBAT DATU

Lasarte-Orian, 2015ean 18.190 herritar bizi ziren. Haietatik 12.077 Euskal Herrian jaiotak ziren, Espainiako estatuan jaiotak 4.536, eta gainerako jatorrietako 1.577 biztanle zeuden, hau da, herritarren %8,6.

Pertsona migratuen proportzioa hazten joan da azken hamarkadan. 2000an espainiar estatutik kanpoko jatorrikoak %0,57 ziren (100 pertsona), 2005ean %3 (533 pertsona) eta 2010ean %5,94 (1061 pertsona).



2011ko datuen arabera, migratutako pertsonen gehiengoa 25-35 urte bitartean kokatzen da:



ETORKINEK

LANA KENTZEN DUTE?

- Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuen arabera, 2014ko lehen hiru hilekoan Espainiako atzerriko biztanleriaren langabezia-tasa % 45 zen, espainiarrena baino 29 puntu gehiago. Krisiaren ondorioz, atzerritarrek ere galtzen dituzte lanpostuak.
- Immigrazioaren Behatoki Iraunkorraren arabera, 2009an pertsona etorkinen okupazio tasa 7,4 puntu jaitسي zen, eta estatukoena 2,5.
- Krisi ekonomikoak migrazio fluxuetan eragina izan du, urteko immigrazio-tasaren bilakaerak adierazten duen moduan: 2000 eta 2010 urte bitartean, urteko immigrazio-tasa % 10etik % 20ra handitu zen, baina 2010ean tasa hori % 3,7 besterik ez zen hazi.
- Biztanleriaren zahartzearen eraginez, INEren 2010eko aurreikuspenen arabera, Espainiako estatuan 2019tik 2040ra arte berriro atzerriko eskulana beharko da, 64 urtetik gorako biztanleen kopurua bikoiztu egingo baita 2040rako.

Beraz, etorkinak krisiaren ondorioz gogorren kolpatutako kolektiboetako bat dira: lan-baimenak eskuratzeko zailtasunengatik, ikasketak homologatzeko oztopoengatik, bertako lan merkatua ez ezagutzeagatik, hizkuntza-zailtasunengatik...

ETORKINEK

EZ DUTE LANIK EGITEN?


- 1999an estatuan Gizarte Segurantzaren afiliatutako 335.000 atzerritar zeuden. 2008rako bi milioitik gora ziren, eta 2010era arte, krisia tarteko, zifra hori % 2 soilik jaitسي da (1.868.675era).
- Gizarte Segurantzako afiliatuen % 9,7 atzerritarrak ziren 2010ean, eta % 95,5ek 55 urtetik behera zituen; beraz, segurantzaren sozialari ekarpena egiten urte askoan jarraituko diote.

Etorkinak migratzearen arrazoi nagusienetakoa lana bilatzea da. Hala adierazten dute, batetik, etorkinen profilak (gehiengoa biztanleria aktiboa den adinean dago); eta, bestetik, krisia hasi denetik beren herrialdera itzultzeko joera areagotu egin izateak.

ETORKINEK GAINONTZEKOEK BAINO LAGUNTZA GEHIAGO JASOTZEN DITUZTE?

- 2014an EAEn bizi ziren etorkinen % 73,4ren diru-iturria ordaindutako lana da edo ez dute diru-iturririk, EABI atzerri-tar jatorriko biztanleen inkestaren arabera.
- EAEn gizarte prestazio gehiago daude Espainian baino. Hala ere, EAeko etorkinen proportzioa Espainiakoa baino txikiagoa da: EAEn biztanleriaren %6,9 dira eta Espainian %12,2. Prestazioengatik baleude hemen, zergatik dago proportzio txikiagoa EAEn?
- Gizarte-prestazioetako aurrekontuaren %40 baino gehiago erretiro-prestazioetan inbertitzen da, Lankidetzeta eta Garapen Ekonomikorako Erakundearen datuen arabera. Gaur egun, Espainiako pentsiodunen artean %1 baino gutxiago dira atzerritarrak, eta haietatik erdiak baino gehiago Europako Erkidegokoak dira (frantsesak eta alemanak, bereziki).
- Etorkinen profilak gehienbat 25-44 urte bitarteko pertsonarena da. Horrek "egoki" bihurtzen ditu zerbitzu eta prestazio batzuetarako, baina beste batzuetatik kanpo uzten ditu. Ordezkaritza gutxiago dute honako eremuetan: pensio-sisteman, mendetasunagatiko laguntzetan edo desgaitasunagatiko prestazioetan.

Gizarte prestazioetan ez dago atzerritarrei bertako herritarrei baino lehentasun handiagoa emateko inongo erregulaziorik. Prestazio horien helburua da beren bizilekua EAEn ezarri duen pertsona guztiek oinarrizko eskubideak eta beharrak asetzea.



ETORKINAK

MATXISTAK DIRA?

- Matxismoa kultur eraikuntza bat da, gizarteek eraikitako genero-sistemen arabera, genero desberdinen rolak eragindako desberdintasun sozialak eragina. Gizarte orotan dago generoen arteko desberdintasunak eta hierarkizazioak markatzen dituen sistema, ez soilik etorkinen kasuan eta beren artean ere mila forma desberdinetan.
- Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentziak egindako EB mailako inkesta baten arabera, 18 eta 74 urte bitarteko emakume europarren hirutik batek (62 milioi pertsona inguru) eraso fisikoren bat jasan du inoiz, hamarretik bat sexualki erasotua izan da eta 20tik bat bortxatua. Datu horiek adierazten dute mundu mailako arazoa dela matxismoarena, edozein lurraldetan aurki daitekeena.

Gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak gizarte eta talde guztietan daude; gurea ez da salbuespena. Kasuz kasu adierazpen oso anitzak hartzen dituzte. Etorkinak ere ez dira osotasun homogeneo bat: EAEn 160 herrialde baino gehiagoko emakumeak daude. Immigrazioa aukera eta erronka da berdintasunerako.

DELINKUENTZIA

AREAGOTZEN DUTE?

- Espainiako legea hausten denean, adinez nagusikoetan 100etik 70 espainiarrak dira; adinez txikikoetan, 100etik 80 (INEn 2008ko datuak).
- Azken hamar urteetan delituen eta faltan kopurua bere horretan mantendu da EAEn. Aldiz, etorkin kopurua hirukoiztu egin da.
- Etorkinen atxiloteta kopuru handi bat dokumentazioa ez edukitzeagatik gertatzen da. Hori ez da delitu bat, baizik eta arau hauste administratibo bat, NAN-a kadukatuta edukitzea bezala.
- Kalkulatzen da atxilotzen diren etorkinen % 40 ez da espainiar estatuan bizi; turistak edota denbora laburrerako dauden pertsonak dira.

Delituak egiteko arrazoia ez da pertsonaren jatorria; errealitatea eta tarteko aldagaiak askoz konplexuagoak dira (bizi den egoera, finkatze-maila, segurtasuna...). Kolektibo bat delinkuentziarekin zuzenean lotzeak komunitate horren irudia desixuratzea eta negatiboki sinplifikatzea eragiten du.



EZ DIRA **INTEGRATZEN?**

- EAEn bizi diren etorkinen % 89,6k egoitza eta lan baimenak dituzte. 2010. urtean, espainiar naziotasuna %20k zuten eskuratua; 2014rako %29,9ra igo da kopuru hori.
- Etorkinen % 87k bertako biztanleriari buruzko aldeko balorazioa du. %80,8k bere burua nahikoa gizarteratuta ikusten duela dio.
- %76,7k EAerekin nahiko maila altuan identifikatzen direla dio, %46,1 nahiko identifikatuta, %26,9 asko identifikatuta eta %3,8k bere nortasun ikur nagusia dela dio.
- Immigrazioaren Behatoki Iraunkorraren 2007ko datuen arabera, Espainiako estatu mailan pertsona etorkinek gehiago parte hartzen zuten biztanleria osoari bideratutako erakundeetan jatorriz atzerritarrak diren pertsonen bideratutakoetan baino. Gehien parte hartzen zuten elkarte motak honakoak ziren: kirolekoak, hezkuntza eta kultura-koak, sozialak eta erlijiosoak.
- Lasarte-Orian bizi diren Espainiako estatuz kanpoko etorkinen kasuan, euskara gaitasunak gora egin du azken urteetan: 1986an etorkin horien %9 zen euskalduna, %14,4 ia euskalduna eta %76,6 erdalduna. 2006an, estatuz kanpoko etorkinen %34,8 zen euskalduna, %24,1 ia euskalduna eta %41,1 erdalduna.
- Immigrazioaren Behatoki Iraunkorraren 2007ko datuen arabera, espainiar estatuko emakume etorkinen % 61ek eta gizonezkoen % 35ek bikote mistoak izan dituzte.

Gure gizarteetan gero eta jatorri eta kultur aniztasun handiagoa dago, eta hori aberastasuna da. Era berean, gizarte bat ez da inoiz izan eta ez da izango homoginoa: euskal gizarte oso anitza da bere baitan. Zer ulertzen dugu integrazioaz hitz egiten dugunean? Nora integratu behar dute?

INFORMAZIO GEHIAGORAKO

Gida honetan ateratzen den informazioa jarraian agertzen diren iturrietatik atera da:

- CEPAIM Fundazioa (2012) De los tópicos a la realidad. Procedimiento de actuación frente a prejuicios relativos a la diversidad por origen.
- EUSKO JAURLARITZA (2014) Etorkin Atzerritarrei Buruzko Inkesta (EABI).
- IKUSPEGI (2014) Zurrumurrurik ez. Argudio gida. Getxoko Udala, Eusko Jaurlaritza eta EHU/UPV.
- (2015) Getxoberri Zurrumurrurik Ez 3.zenbaki berezia. Getxoko Udala, Eusko Jaurlaritza eta EHU/UPV.
- EUSKO JAURLARITZA (2012) Aurre egin zurrumurruari. Immigrazioari buruzko zurrumurruei, estereotipoei eta aurreiritziei aurre egiteko gida praktikoa.
- LASARTE-ORIAKO UDALA, Jatorri Aniztasuna Zenbakitan aplikazioa.
- IKUSPEGI Mapa interaktiboak, udalerrika.
- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA, Euskararen Datu Basea.
- MADERO, A.; MONTERO, J.A.; SÁNCHEZ, I. (2014) Stop rumores. Manual antirumor. Federación Andalucía Acoge.
- SOS ARRAZAKERIA, Zurrumurruek desagiten triptikoa eta komiki txartelak.
- ARNOSO, M.; MAZKIARAN, M.; ARNOSO, A.; LUCIANI, S.; VILLALÓN, A.; OTAEGI, A. (2011) Etorkinek zerbitzu eta prestazioetara duten sarbidea Euskal Autonomia Erkidegoan. Ararteko: Juan San Martin ikerketa bilduma.

INTERESEKO **BALIABIDEAK**

- Mugak dokumentazio zentroa <http://mugak.eu/eu/>
- Ikuspegi Immigrazioaren Behatokia <http://www.ikuspegi.eus/eus/>
- Getxoko Zurrumurrurik Ez estrategia <http://www.getxo.eus/eu/antirumores/recursos/guias-y-manuales>
- Antirumores, Zurrumurruen kontrako estrategia <http://www.antirumores.com/eus/home.html>
- Stop Rumores (Andaluzia) <http://stoprumores.com/recursos/>